

B

BARREN

Erantzi mozorroa, eta gu geu berriz

TOKIKOM





TEXTIL HOGAR - LAGUNAK

**BISITATU GURE ERAKUSKETA,
HARRITUKO ZAITUGU.
LAGUNAK GURE DENDAK
BERRIZTATZEN JARRAITZEN DU.
Armairuak, arropategia, armairu-barrua...**



San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - www.textillagunak.com



ikastolak
etorkizuna ereiten

www.elgoibarikastola.eu



ongi etorri
gurean izena
eman duzuen
guztioi
eskerrik asko!
gustura gauzatzen



www.ikastola.net

943 744441
elgoibar@ikastola.net

Ohitura zahar bat berreskuratu ala lau-bost afari egitteko aitzakixa mundiala?

2008ko martxuaren 1a, zapatu gabeko hamarrak Eibarko Artola jatetxian. Mendaroko hamar *plazakume* afaltzen hasteko prest daude eta... “Ño! Eskusa mundiala topau juagu urtian behin aparti edar bat egitteko: Aingeru Guardakua”.

Holaxe hasi zan oin kontatzer a nixen istorixatxua, Euskal Herri xan egitten diran ekintza gehixenak bezela, jana eta edana falta ez dan mahai inguru batian.

Plaza auzoko edo auzuan jaixotako bateren baten seme-alabak ziran haiek, afari bat eitteko motibo bila zabizen, eta urte hartan danak edarki enkajau ziguen. Martxuaren 1a, Plazan daguan Aingeru Guardako ermitatxoko eguna, zapatua tokau zan, eta hori zelebrou egin bihar zala esanez Eibarren afari bat egittia okurridu zitzakuen.

Egun hartan ez det uste inor ermittara jua zanik limosnia botatzera, baiña Artolanera danak puntual aillegau zirala seguru dakitt, neu ere tartian nintzan eta! Zela ez ba, ama Plazakua det eta!

2009 xan ez dakitt ze egun tokau zan martxuaren 1a, baina inguru hortan afarixa egin gendula, bai. Urte hartan, Mendaron domau giñan, eta Landanian bapo afaldu ondoren, gure Pachá famosuan afarixa bajatzeko ariketak egitten ari giñan bittartian, iluminauren batek oin dala 10 urtera arte eguardiko meza ostian egitten zan erromerixia berreskuratu bihar zala proposau zuan, aingeruak babestia nahi bagendun horixe gutxienez egin bihar gendula. Kasu hauetan pasatzen dan bezela, danok baietz esan gendun, konbentziduta gainera! Kontestua zelakua zan ikusitta, eskerrak iñork ez zuan proposatu Lizarpen neguko joku olinpikuak

antolatzia, ze seguru nago horri ere balekua emango giñola. Han zuaan indarrarekin eta sasoiarekin... errez gainera!

Ba aingeruaren espirituak lagunduta edo emandako hitza ez jatiarren, 10 *plazakume* iluminau haiek euren promesiakin aurrea dixez, eta aurten ohitura zahar bat berreskurauko debe martxuaren 7an.

Nahiz eta batzuek komentauko deben: “Hónek hartzen jaittuek lanak urtian zihar lau aparti paxara egittearren”. Guk erantzuten diegu: “Ondo eginda daude afari hórrak, hau bezela, Plazako jende asko poztuko doan ohitura zahar bat berreskuratzen amaitzen badebe”.

Iñigo Lazkano



“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitze gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Eskerrak iñork ez zuan proposatu Lizarpen neguko joku olinpikuak egittia, ze ziur horri ere balekua emango giñola”

**Luisfer Mendibilena da azaleko argazkia
Mila esker BARRENen eskaerari
erantzun diozuen guztioi.
Inauterietako irudiak ikusteko:**

MEDIATEKAN



www.elgoiBARREN.net

**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**



GARBIÑE ARRIZABALAGA

GIPUZKOAKO IKASLEEN GURASOEN FEDERAZIOKOA

“Sare sozialak ezagutzea ezinbestekoa da seme-alabei laguntzeko”



Herri Eskolako eta Institutuko guraso elkarteak antolatuta, “Zer jakin behar dute gurasoek sare sozialei buruz?” izenburuko hitzaldia eskaini zuen joan zen eguenean Garbiñe Arrizabalagak, Elgoibarko Kultur Etxean. Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioko kidea da Arrizabalaga, eta han-hemen dabil aspaldian, gurasoek sare sozialen inguruan dituzten kezak argitzen. Gauza guztiek moduan, sare sozialek alde onak eta txarrak dituztela nabarmendu zuen Arrizabalagak, eta haietan trebatzea ezinbestekoa dela esan zien gurasoei, seme-alabei horren erakargarri zaien tresnen arriskuez ohartarazteko.

Ez zaizu iruditzen alarma moduko bat sortu dela sare sozialen inguruan?

Izan daiteke, bai. Alde onak ere badituzte, baina etengabe aldatzen ari diren gauza berri bat diren neurrian, komeni da arriskuez ere ohartaraztea. Ez dago alarmerik sortu beharrik, baina gauza batzuk jakitea ezinbestekoa da.

Guraso askoren beldurren atzean ez dago neurri batean ezjakintasuna?

Kasu askotan, bai. Guraso batzuen kasuan behintzat begi bistakoa da hori. Seme-alabei laguntzeko bide bakarra medioa ezagutzea da. Horretarako, nik beti esaten diet komeni dela *Facebook*en edo antzeko sare sozialetan perfil bat sortzea, ikusteko gure seme-alabek non eta zertan pasatzen duten denbora. Interneteko terminologia ezagutu beharra dute, eta sareak eskaintzen dituenak ere bai. Internet bidez egiten diren harremanak nolakoak diren jakitzeko bidea ematen du horrek, eta baita komunikaziorako tresna berri honen alde onak zein txarrak ezagutzeko. Irtenbidea ez da seme-alabei sare sozialak erabiltzea debekatzea, modu horretan aurrera egitea ukatzen diegulako. Teknologia asko ari da aurreratzen, eta ezin dugu gurdi horretatik jaitzi. Ikasi egin behar dugu, eta aurrerapen guztien berri izatea asko eskatzea dela pentsa dezake norbaitek, baina beste gauza asko ere ikasi behar izan ditugu: bideoa programatzen, DVDA edo mikro-uhin labea erabiltzen eta abar. Egunean egon behar dugu, ondo erabillita, aukera asko eskaintzen dutelako.

“Gustatzen ez zaiguna zer den ikustarazi behar diegu gazteei, eta ezezagunez mesfidatzen erakutsi”

Adibidez?

Hezkuntzan, esaterako, asko lagundu dezaketela iruditzen zait, baina nik uste oraindik ez zaiela behar besteko etekinik ateratzen. Egia da horrek hezkuntzako profesionalak trebatzea eskatzen duela, eta lan horri ez zaiola behar bezala heldu oraindik.

Gurasoek sare sozialetan perfilen bat izatea komeni dela diozu. Horrek ez al du, baina, gaztearen intimitatea urratzen?

Bai, bai. Perfila sortu behar dela esan dizut, baina horrek ez du esan nahi guraso horrek seme-alabak bere lagun taldera batu behar dituenik. Perfila sortu behar da, tresna komunikatibo horrek nola funtzionatzen duen jakiteko, baina ez seme-alabak euren baimenik gabe kontrolatzeko. Bestela, geure kontra ariko ginake. Izan ere, ziurrenera gure seme-alabak beste perfil bat sortuko luke, beste izen batekin, gurasoen gustuko ez den informazioa zabaltzeko. Bi perfil izango lituzke: *zuzena*, eta berea, benetakoa.

Eta nola zaindu ditzakegu haien esparruan sartu gabe?

Tresna informatibo hori eurek bezain ondo menperatuta. Bitartekoa ezagututa, gure seme-alabekin hitz egin dezakegu, eta tar-teka, perfila erakusteko eskatu. Izan ere, gazteei oso erakargarria egiten zaie jende ezezaguna euren lagun taldera batzea. Gustatzen ez zaiguna zer den ikustarazi behar diegu, eta ezezagunez mesfidatzen erakutsi. Gazteentzako oso erakargarriak direlako sare sozialak. Tresna errazak dira, eta teknologikoki aurreratuak oso. Edozer egiteko aukera eskaintzen dute, gainera, eta unean-unean sentitzen dutena esateko aukera ematen diete gazteei. Askotan, aurrez aurre kontatuko ez lituzketen gauzak esateko ere bai. Inork ulertzen ez dituela sentitzen dutenean ere, sare sozialetan babes moduko bat topatzen dute. Anonimotasunean gordetzen dira askotan, eta anonimotasunetik jasotzen dituzte aholkuak ere. Hori oso arrisksua izan daiteke.

Anonimotasunean edozein ezkutatu daitekeelako.

Bai, hala da. Euren adin bereko jendearekin aritu arren, gerta daiteke konpainia ona ez izatea. Guraso asko etortzen zaizkigu kezkatuta, euren seme-alabek denbora asko pasatzen dutelako ordenagailu aurrean, eta ez dakitelako garbi norekin eta zertaz ari diren. Kontrolatu ezin horrek beldurtzen ditu; ezezaguna zaien horrek.

Zer da guraso batek derrigor jakin beharrekoa?

Betikoa da. Guraso batek jakin behar du sareak bere alde onak eta txarrak dituela, eta lagundu ahal izateko, ezinbestekoa

zaiola sare horrek nola funtzionatzen duen jakitea. Hortik aurrera, nire ustez, badira puntu batzuk oso kontuan hartu beharrek. Ordenagailua non jartzen dugun ere oso inportantea da, esate baterako. Gazte askok euren logelan izaten dute ordenagailua, eta hori azkena da. Portatilak ere ez nituzke gomendatuko. Ordenagailuak egon-gelatan egon behar du, edo gutxienez, denok ibiltzen garen lekuan.

“Kontua ez da haurrei sare sozialak erabiltzea debekatzea, modu horretan aurrera egitea ukatzen diegulako”

Gazteak kontziente dira sare sozialen arriskuez?

Neurri batean, bai, baina sare sozialak hain dira erakargarriak askotan oharkabean jausten direla amuan. Nik uste dut teoria oso ondo menperatzen dutela gehienek. Badakite datu pertsonalak ez direla eman behar, eta irudi zein informazio jakin bat jartzea arrisksua izan daitekeela. Gertatzen da askotan ez direla konturatzen euren profilean jartzen duten informazioa urrutira iritsi daitekeenik. Badakite sare batzuek erabiltzaileen datu pertsonalak saltzen dituztela, eta ezin dituztela euren telefono zenbakiak eta eman. Badakite *Facebook* edo *Tuenti* bateko horman idaztea eta posta elektronikoko baten idaztea bi gauza ezberdin direla. Jakin badakite, baina gazteak dira, eta gaztetan arriskuak ez dira horrenbeste ikusten. Baina hori gauza guztietan gertatzen da, eta ez bakarrik sare sozialetan.

Ordenagailuek eurek ere eskaintzen dituzte filtro eta antzeko batzuk. Horiek zein puntura arte dira lagungarri?

Ez dakit, baina lagungarriak badira. Filtroak, pasahitzak, *K9 web protectione* edo *web dumper* moduko zaintza programak... aukera asko daude. Gipuzkoako Foru Aldundiak, adibidez, atera berri du zaintza programa bat ere.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: baren@elgoibarkoizarra.com.

Kutxaren bitarteko sarrera-salmentaren inguruan

Ugari dira sarrera-salmenta modu horretan egitearen aldeko faktoreak. Horieta-ko bat eta garrantzitsuena Internet erabiltzearena da. Batez ere, Internetek duen ordutegi zabala kontuan izanda. Bertan, ekitaldiaren inguruko informazioa jaso ahal dugu, eta sarrerak edozein kokapenetatik eta edozein unetan lortzeko aukera ematen digu.

Erosteko modu honek 0,80 zentimo (telefonoz) eta 0,70 (Internetez) garestitzen du sarreraren prezioa; beti ere, erosketa Internet bidez edo telefonoz egiten badugu, baina, zuzenean kutxara joanez gero, lehenago Kultur Etxera joaten ginen moduan, ez du inolako komisiorik..

Kutxan, bulego orduetan, langile bat arduratzen da sarrerak nola erosi behar diren aholkatzen. Ez da beharrezkoa kutxako txartela edukitzea, edozein txartelek balio baitu, eta berriro diogu ez duela inolako komisiorik.

Egia da, batzuetan, sarreren makina horrek arazoak eman dituela, baina, Kutxa ari da horiek konponbidean jartzen, izan ere, Kutxa da makina horren mantenuaren ardura duena. Makina hori Kultur Etxean egongo balitz ere, arazo berberak emango lituzke.

Sarrerak, bai Kutxan, bai Herriko Antzokiko leihatilan, hartu daitezke inolako komisiorik gabe.

Sarreren prezioei dagokionez, batez besteko prezioetik behera daudela esango nuke. Begira dezagun, bestela, Elgoibarren izandako azken ikuskizuna, *Cocidito*

madrileño, 8,50 euroko sarrera zuena (gazte txartelarekin, gainera. 6 eurokoa izan zen sarrera hori). Astebete geroago, Eibarren izan zen ikuskizun bera, eta eibartarrek 20 euro ordaindu behar izan zituzten. Inguruko antzokietako sarrerak zenbatekoak diren badakigu, eta ziur izan Elgoibarren oso prezio herrikoiak ditugula, beste herrietakoak baino merkeagoak.

Elgoibarko Udala

Eskerrik asko!

Sinuosek eskerrak eman nahi dizkizue ostiralean Sotora agertu eta parte hartu zenuten guztiei. Oso esperientzia polita izan zen. Jendearen inplikazio itzela ikus-tea eta, gehien bat, entzutea 14 urte hauen oparirik onenetakoa izan da. Mila esker, benetan.

Sinuose

Tratu duin baterako eskubidea

Euskal Preso Politikoen Kolektiboa suntsitzea helburu duen espetxe politika urrats berriak ematen ari da bide horretan. Euskal preso politikoa eskubiderik gabeko pertsona da espainiar eta frantziar espetxeetan. Horretarako, bakartzea, sakabanaketa, biziarteko zigorra, eta osasun asistentziarako eskubidearen ukazioa erabiltzen dituztela, besteak beste.

Askotan salatu izan dugu presoarekin batera beraien senideak eta lagunak ere zigortzen dituztela. Finean, elkartasuna bera zigortzen da, eta horren adierazle argiak dira sakabanaketa politika eta bisitetara bidean senide eta lagunak jasan behar izaten dituzten oztipo eta jazarpen guz-

tiak.

Baina presoekiko elkartasuna ahultzerik lortu ez dutenez, neurri berriei datoz orain. Euskal preso politikoen senideak miatzen hasi dira egun batetik bestera, miaketa hauen jomuga izaten ari direlarik umeak, aitona-amonak, edo elbarritasun fisiko nahiz psikikoak dituzten senide eta herritarrak.

Senideen aurkako miaketek espetxe politikaren ankerkeriaren neurria erakusten digute. Ondorioz, ehunka aurrez aurreko bisita galdu dira azken hilabeteotan, eta, oraindik orain, astebururo hainbat lagun eta senide bisitarik gabe gelditzen ari dira, mila kilometro errepidean egin ondoren. Aurrez aurreko bisita presoak bere senideak edo bikotekidea besarkatzeko eta ukitzeko duen une bakarra da, gainontzeko bisitetan kristal lodi batek banatzen baititu preso eta bere senide edo laguna.

Euskal preso politikoen aurka denak balio du, eta miaketekin gertatzen ari dena ondo marrazturik duten eta muturreraino eramaten ari diren espetxe politikaren azken pausoa izan da.

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak ozen aldarrikatu nahi du presoek eta senideek bisitak duintasunez egiteko duten eskubidea. Eskubide guztien jabe euskal preso politikokoak Euskal Herrira ekar ditzatela eskatzen dugu.

Elgoibarko AAM

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarki lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: baren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: baren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Oier Narbaiza, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Oier Narbaiza PUBLIZITATEA Leire Rubio, Eneritz Lazkano MAKETATZAILA Zalao Amaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILAK Oihana Tarragual, Anjel Bazterretxea, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldagi, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza, Jairo Berbel. IMPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.760 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Oihana
Tarragual

Mozorrotu al zara karnabaletan, Don Angel?

Ni ez, ez neukan gogorik, baina txikitan asko gustatzen zitzaidan disfra-

zatzea.

Gaur egun, umeek mozorro ezberdinak janzten dituzte urtetik urtera, gu disfrazta txiki geratu arte urtero, sorgin, pailazo, erizain eta abar jantzita joaten ginen.

Edo bestela, amak emandako trapu zaharren bat jantzi eta pozozik ateratzen ginen kalera, gaur eguneko umeak ziur lotsatu egiten direla etxean egindako mozorroak jantzeaz. Hau da hau!

“Denok dugu mozorro bat urte osoan, denok dugu ‘rol’ bat”

Mozorrotu al zara karnabaletan, Don Angel? Horixe galdetu dizut hasieran, baina galdera hori hurrengo honen ordeztatu nuke: urte guztiko mozorroa kendu al duzu inauterietan?

Denok dugu mozorro bat urte osoan, denok dugu *rol* bat, familian, kuadrilan, lanean... Edo denok dugu ezarri zaigun paper bat bizitzako pelikulan. Askotan entzuten dugu: “Joxe lotsatia da oso”, edo “Pepita hain da alaia” edo “holako karakterra duen Juan Mariki!”.

Besteek sortu diguten irudi hori, irrealia izan daiteke. Pertsona bat bere osotasunean ez da lotsati edo alaia, edo sekulako *mala letxea* duena, askoz ere gehiago da. Zoritxarrez, zaila da ezarri diguten irudi horretatik aldentzea.

Tamalez, *autentikoa* izatea eta norberaren iritzi eta nahiei kasu egitea (eta ez besteek diotena egitea) gutxi lortzen duten helburua da. Baina zergatik ez ahalegindu?

Zuk, Don Angel, urte osoan mozorro bat daramazu ala ura baino gardenagoa zara?



Anjel
Bazterretxea

Oihana laguna, a zelako gaia atera duzun gure elkarrizketarako!

Gure gazte denboran debekatuta zeuden karnabalak. Guk denbora horretan, elizara joan, eta hiru egunetan otoitz egiten genuen, karnabaletan egiten ziren bekatu handiengatik.

Gaur egun, zorionez, karnabalak bizipozaren seinale dira. Bestela, ikusi gure kale eta bazterrak guztiz aldatuta, jendez gainezka eta aurpegiak pozik ikusten direla. Bagoaz aurrera horretan ere.

Esan dudanarekin konturatu zara, Oihana, gu ez ginela mozorrotzen, ez etxean egindako trapu zaharrekin, eta gutxiago oraindik oraingo arropa dotoreekin.

“Zelako ondo ibiltzen garen mozorroaren beharrik gabe”

Ea mozorrotu naizen behin ere galdetzen didazu. Neuri gertatutako anekdota batekin erantzungo dizut: orain dela urte batzuk lau abade oporretara joan ginen Portugal aldera, Lisboan ospatzen ari zen erakusketa ikustera. Ibili ginen han-hemenka eta etxera itzultzerakoan esan zuen lagun batek: “Joan hadi orain hire herrira, jarri ezak abade-maskara eta hasi hadi berriz ere eguneroko komedia egiten”. Ez abade lana komedia delako, baizik askotan ez garen bezala azaldu beharra daukagulako.

Zuk esan didazu askotan egin beharra dagoela eguneroko komedia hori. Eta komedia horren zergatia non dago? Zu eta denok konfiantza daukagun lekuetan lasai asko ibiltzen gara, nahiz eta batzuetan gauzak ondo ez egin. Baina benetako lagun artean hori normala da. Eta a zelako ondo ibiltzen garen mozorroaren beharrik gabe.



Elgoibarko Udala




ELISKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



INAUTERIAK ARGAZKITAN







MOZORRO LEHIAKETA



Egun bat hondartzan taldeak irabazi zuen taldekako lehen saria (275 euro).

Banakako atalean Shrek pizti berdeak jaso zuen 125 euroko saria.



GIRO BIKAINA ETA IRUDIMENA INAUTERIETAKO MOZORRO LEHIAKETA!

Elgoibarko Izarrak antolatuta, mozorro lehiaketa izan zen zapatu gauean. 60ko eta 70eko hamarkadetan girotu zuten gaua. Sekulako hotza egin arren, giro paregabea jarri zuten eszenatoki gainera igo zirenek, eta baita behean egon ziren ikusleek ere. Irudimenik ez zen falta izan, eta denetariko mozo-roak jantzi zituen jendeak. Ezin, baina, denek irabazi! Jarraian bildu ditugu saritutako mozo-roak.

Koreografia onenaren saria Las Pelos taldeak irabazi zuen (125 euro)



Bigarren saria Banana Taldeak eskuratu zuen (175 euro) .



Antolatzaileak eta aurkezleak dantzaldirako prest.

Martxan da Soraluzeko ur zikina batzeko eta Apraizera zuzenean eramateko sistema

Ur biltzailearen obrak lau milioi euroko aurrekontua izan du

Lanak erabat amaituta ez dauden arren, Soraluze eta Maltzaga arteko ur kolektorea martxan dagoela azaldu du Uraren Euskal Agentziak. Hortaz, 2009ko abendu ingurutik, Soraluzeko ur zikina Apraizko araztegiara doa zuzenean. Kolektorea Deba ibaiaren eskuin aldean kokatuta dago. Maltzagan egiten du bat sare nagusiarekin, eta hortik joaten da ura Apraizko araztegiara. Soraluzeko enpresa gehienak kolektorera konektatuta daude, eta euren jarduerak sortzen dituen ur zikinak bertara bideratzen dituzte. Hala ere, Soraluzeko ingurune fisikoa dela-eta, oraindik enpresa batzuk falta dira kolektorean konektatzeko. Uraren Euskal Agentziatik jakinarazi dute enpresa batzuek zailtasunak izango dituztela ur biltzailearekin konektatzeko, eta horiek ur zikina garbitzeko beste bide batzuk landu beharko dituztela.

Bi urte behar izan dituzte ur kolektorearen obrak egiteko. Aurrekontua lau milioi euro ingurukoa izan da, eta Eusko Jaurlaritzako Uraren Agentziak finantzatu du %100ean.

Deba ibaiko ura garbitzeko lanak aurrera doaz poliki-poliki, eta Apraizko depuradora 2011n egongo da errendimendu osoan. Debabarrenako 90.000 biztanleren ur zikinak garbituko ditu.



Txankakua merkatari elkarteak banatu ditu Gabonetako sariak



Elgoibarko Txankakua merkatarien elkarteak joan zen barixakuan banatu zituen Gabonetako zozketako sariak. Elkartearekin bat egindako dendetan erosketak egiteko 1.800 euro banatu zituzten guztira, hamar txeketan. Maria Luisa Arriola eta Kristina Zuatzubizkarrek jaso zuten 500 euroko bi tiketak, eta 100 euroko gainerako sariak, berriz, honako beste hauek: Ane Etxeberria, Koro Ansola, Juli Chaparro, Julia Ferriz, Flori Etxeberria, Maialen Lizarazu eta Urrategi Altzibar. Sari bat eman gabe geratu da, zenbaki sarituaren jabea ez delako azaldu.

Martxoan hasiko dituzte Antonio Arrillaga kaleko obrak

Luze ez dela hasiko dituzte Antonio Arrillaga kalea urbanizatzeako obrak. Espaloiak eta zorua berritzeaz gain, oztopo arkitektonikoak kenduko dituztela iragarri du Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkateak, eta zeregin horretarako, ia 300.000 euroko aurrekontua izango du Aika enpresak. Antonio Arrillaga kaleari "itxura berritua" eman nahi zaio, eta horrek beste balio bat emango die inguru horretan dauden lokalei. Era berean, Ubitarte ingurua ere urbanizatu nahi du Udalak, eta okerrik ezean, martxoan esleituko dute proiektua.



Izena **CME enpresa**



CME enpresako behar-ginek protestan jarraitzen dute. Enpresak zazpi nomina zor dizkie, eta euren egoera zuzendu arte, mobilizazioei eutsiko dietela jakinarazi dute langileek. Aldameneko irudian, CMEko langileak ageri dira, Itziarren enpresa atarian egindako elkarretaratzetza batean.

Zenbakia **32.878**

Miski elkarteak 32.878 euro bildu ditu Peruko umeak eskolatzeko. Gemma Agirregomezkortaren arabera, 2009ko kanpaina "zaila" izan da, baina pozik dago lortutako diru kopuruarekin. Elkartearen izenean eskerrak eman dizkie kanpaina parte hartu duten guztiei: ikastetxeei, Elgoibarko eta Getariko Udalei, La Caixa banketxeari, eskupekoak eman dizkieten guztiei, umeak apadrinatu edo babestu dituztenei, eta baita ere erriak erosi dituztenei. Gemma otsailaren 28an abiatuko da Cusco aldera.

Irudia **2.300 kilo janari**

Elgoibarko Misio Taldeak 2.300 kilo janari bildu ditu Haitira eramateko. Bidezko Merkataritzaren dendan egin dute janari bilketa, eta elgoibartarrek oso ondo erantzun diote Misio Taldearen eskaerari. Janariaz gain, mantak eta botikak ere bildu dituzte Karibeko irlako bizilagunei laguntzeko. Produktu horiek batera, dirua biltzeko kanpaina jarri dute martxan, eta dagoeneko, 5.500 euro batu dituzte. Interesatuak Euskadiko Kutxan, Misio Taldearen kontu korrante zenbakian sartu dezakete dirua. Misio Taldeak eskerrak eman nahi dizkie kanpaina parte hartu dutenei: Besteak beste, Udalarai, brigadako langileei, merkatu plazako dendariei eta Ikastolako 2. mailako ikasleei.



'Balioetan hezitzen' hitzaldia eguaztenean, Kultur Etxean

Elgoibarko Institutuko eta Herri Eskolako Gurasoen elkarteek antolatutako jardunaldi pedagogikoen barruan, *balioetan hezitzen* izenburuko hitzaldia izango da eguaztenean, Elgoibarko Kultur Etxean. Balioak ahazten ari direla-eta, seme-alabei erakutsi beharreko balioetatzen arituko dira hitzaldian. Ekitaldia 19:00etan hasiko da. Antolatzaileek ez dute argitu oraindik zein izango den hizlaria.

Trinitate ermitako fokoak ostu dituzte Mendaron

Trinitateko ermita, Mendaroko eraikin esanguratsuetako bat, argirik gabe laga dute lapurrek. Ermita kanpoaldetik argitzen zuten argiak dira ostu dituztenak. Argi fokoak kableak moztu, torlojuak askatu eta fokoak eraman dituzte, beste noizbait Santa Anako ermitan gertatu izan den moduan. Hala, Trinitate argitzeko sistema egokiago bat aztertzen dihardu orain Udalak, ermita argitu eta lapurretak zailduko dituen.

Olioia jasotzeko hamar ontzi jarriko dituzte Elgoibarren, eta bi, Mendaron

Etxean erabilitako olio birziklatzeko ontziak jartzeari ekin dio Debabarreneko Mankomunitateak. Orain arte, egun jakin batzuetan etortzen zen kamioi batek jasotzen zuen etxean erabilitako olio hilean behin, baina aurrerantzean edukiontzi bereziak izango dira horretarako. Hamar jarriko dituzte, Elgoibarren, eta beste bi, Mendaron. Ontzi metalikoak izango dira, eta marra laranja zabal bat izango dute. Olioia plastikozko ontzi edota botiletan sartuta laga behar da, tapoia ondo itxita. Ondoren, plastikozko ontzi guztiak birziklatu egingo dituzte, biodiesela egiteko. Honi buruzko informazioa banatuko dute etxe guztietan, eta eskuorri horietan azalduko dute edukiontzi berrien erabilera.

Gaur egun gazteak 30 bat urterekin joaten dira gurasoen etxetik, bataz beste, baina Eusko Jaurlaritzak emantzipatzeko adina 25-26koa izateko plana prestatzen dihardu.

25 urteko adina egokia iruditzen zaizu emantzipatzeko?



Mikel Lopezosa
18 urte, ikaslea

Nik uste adin ona dela gurasoen etxetik alde egiteko, baina beti ezin da. Egoera ekonomikoak baldintzatzen du hori, eta, gaur egun, oso oso zaila dago. Lanik ez dago, eta lanik ezean ezinezkoa dela iruditzen zait. Dena oso garesti dago, eta nahita ere, ezinezkoa da.



Rebeca Rodriguez
18 urte, ikaslea

Ez legoke gaizki, beharbada, baina nik behintzat oso zaila ikusten dut 25-26 urterekin etxetik irteera. Ez dago lanik, eta dirurik ezean, zaila dago gurasoen etxetik alde egiten. Baina, bueno, diru arazorik ez dutenentzat, adin ona izan daiteke, nik uste.



Maria Jesus Sahagun
48 urte, langabetua

Nik ez dut erreala ikusten, gaur egungo egoeran. Lehen gazteago ezkontzen ginen, eta ikasketak ere motzagoak ziren. Gainera, egoera ekonomikoa beste bat zen. Iruditzen zait adin ona dela. Areago, gazteago izanda ere, ez dut gaizki ikusten, baina gure gazteek zaila dute oso.



Altagracia Figueroa
24 urte, zaintzailea

Nik uste dut 25-26 urterekin baidela ordua etxetik joateko, baina hemen oso zaila dago. Ni Santo Domingokoa naiz, eta 21 urte nituenetik independentea naiz. Ikasi eta lan egiten nuen. Egia da, han ere ekonomia oso ahul dagoela, baina han gutxiagorekin irteten da.



URKIDI
AHOLKULARITZA

Antonio Urkidi
Josefina Fernandez

Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 49
Kalamua, 12



ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 -1 Tel: 943 741 189



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

Jose Angel Zabala

MAHASTI



Urdaitegi eta ardandegia

Merkatu plaza, 30, 33, 34 • 615 76 03 72




Bernardo Ezenarro kaleko piboteak kendu egin behar dira: “Badakit zertarako jartzen dituzten piboteak Bernardo Ezenarro kalean. Badakit jendeak autoa bigarren ilaran ez aparkatzea dela pibote horien helburua, baina bada ordua konturatzeko sistema horrek ez duela funtzionatzen. Jendeak berdin-berdin lagatzen du autoa bigarren ilaran, eta, orduan, piboteek lagundu baino gehiago traba egiten dute. Nire ustez, udaltzainek zaindu behar dute ingurune hori, eta, euren lana da jendeak bigarren ilaran aparka ez dezan zaintzea”.



San Rokeko etxeen artean jendeak nahi duen moduan aparkatzen du autoa: “Kiroldegi aurreko etxeen artean, jendeak ez ditu aparkalekuak errespetatzen. Dauden aparkalekuez gain, beste batzuk sortzen dituzte, eta ondo aparkatuta dauden autoei traba egiten diete. Nik auto handia daukat, eta behin baino gehiagotan geratu naiz autoa aparkalekutik atera ezinik, gaizki aparkatutako autoen ondorioz. Eskertuko genuke horrelakorik ez egitea”.

Elgoibarko tren estazioan langile bat behar da: “Gaur egun makinak gizakia ordezkatu du leku askotan, baina zenbait gunetan oraindik ere aurrez aurreko harremana beharrezkoa da. Elgoibarko tren estazioa da horietako leku bat, nire ustez. Azkenekoz trena galdu nuen, makinak ez zuelako nire dirua onartzen. Txanponak arazoak eman zizkidan, eta langilerik ez denez egoten, ezin nuen dirua aldatu. Estazio inguruko taberna batera joan behar izan nuen, baina denboraz larri nengibilen, eta trena galdu nuen. Langile batek nire arazoa berehala konponduko lukeela uste dut. Jubilatuek ere trenean ibiltzeko txartela Deban edo Eibarren egin behar izaten dute, eta nire ustez, horrelako zerbitzuak herrian bertan eman behar dituzte”.



ESKERTZA

PILAR DAVID IBARGUTXI

Jose Urzelairen alarguna

2010eko otsailaren 8an hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

LOLA ENDEIZA ZUBELDIA

Cleto Iglesias Mendietaaren alarguna

2010eko otsailaren 9an hil zen, 95 urte zituela.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



55 URTE ATZERA

Mendaroko kondairan leku berezia izan du beti Aizbeltzko leizeak. Erentza, Munatxo (Nartxione), Pagaolatza eta Larraskanda baserrien lurrek inguratzen dute Aizbeltz, 279 metro sakoneko leizea. 1955ean, Aranzadi zientzia elkarteko espeleologo talde batek ezaugarazi zituen lehenengoz haren barrunbeak. Juan San Martin eibartarra izan zen leizera sartzen lehenengoa, eta egun handitzat jasota dauka 1955eko ekainaren 24 hura bere idatzietan. Aldi berean, baina, mito bat hausteagatik “pena” ere sentitu zuela laga zuen idatzita. Bihar, Motxaila Eguna ospatuko dute mendaroarrak handik gertu, izen bereko kobazuloan.

Ainara Argoitia



Aranzadi elkarteko espeleologoak Erentza baserriko sendiarekin, 1955eko argazkia

Asko dira Aizbeltzen inguruan sortutako legendak. Inguru hartakoen esanetan, bazen bat berezia, belaunaldiz belaunaldi gaur arte iritsi dena. Legenda hark basapizti handi batekin lotzen zuen Aizbeltz.

Txakur itxurako pizti handi bat bizi omen zen leizean, hortz zorrotzekoa, eta tamainaz, inork inoiz ikusi zuen piztirik handiena. Kondairak dio Erentza baserriko morroia behin joan zela leizera, eta piztiak hiru egi handi esateko eskatu ziola. Morroia hasi ei zen berbetan, ikarak jota: “Eguzkia beroa da, baina sua beroagoa; lletargia argia da, baina eguna argiagoa; eta txakur handiak ikusi ditut, baina zu bezain handirik sekula ez”. Hiru egiak esandakoan, txakurrak hagin adar bat eman ei zion, eta morroia Erentzara iritsi zenean, ziplo jausi ei zen lurrera, sukaldekoko argia ikusi bezain laster. Handik egun gutxitara hil zen gizona. Halaxe kontatzen du Nikolas Zulaikak.

Juan San Martin zenari iritsi zitzaion leienda haren berri, eta, liluratuta, Zulaikatarrengana iritsi zen, Daniel Maiza eta Felix Ruiz de Arkaute espeleologo lagunekin batera. 1951ko urria zen. Galdezka, Nartxioneko atea jo zuten lehenengo, eta Erentzakoa gero. Baserri biok hondoa jota daude gaur egun, baina hangoen oroitzapenean ondo bizirik daude oraindik Aranzadiko talde haren ibilerak. Manuela Arakistain Erentzako alabak aitortu du harrituta laga zuela “eibartar txikiaren jakin-minak”. “Leizera sartu behar zirela esanez etorri ziren, Aizbeltzen inguruan zer genekien galdezka. Inguru haietan leku mada-rikatua zela esan genien, makina bat istorio beldurgarri entzunak genituela. Gure aitak lagundu zien leizera, eta harria bota

zutenean jabetu ziren uste zutena baino zulo handiagoa zela”.

Aspalditik zebiltzan Aranzadikoak Aizbeltzkoa moduko leize bila, Izarraitz inguruan. Baliabideak urriak ziren, baina, eta lau urte behar izan zituzten Aizbeltzko hondoa jotzeko. Adolfo Leibar izendatu zuten espedizio buru, eta 187 metro luzeko lehen bertikal hura jaisteko sistema diseinatzeari ekin zioten. Donostiako Artzai Ona elizako dorrearen halako hiru da bertikala, eta, zalantzarik gabe, erronka handia zen hura minik hartu gabe jaistea.

“Torno berezi bat diseinatu zuten, gurpil batzuei eraginez, espeleologoa hondora jaisteko, *paracaidista* baten arnesean jarrita”, azaldu du Nikolasek. Mandaburuko (Astigarraga) leizean pro-

**Aranzadiko espeleologoek mito bat eraitsi zuten
1955ean, baina Aizbeltzko legendak bizirik dirau**



azkian. Juan San Martinek oparitu zien argazkia erentzatarrei, Aizbeltzko espedizioan laguntzeagatik.

batu zuten torneo, 1954ko urrian, eta hurrengo urteko ekainean, Aizbeltzen. Ekainaren 22an, Erentzako gainetik Aizbeltzera arte jaitsi ziren, trasto guztiak hartuta. Kilometro inguruko bidea da. “Gure aita ibili zen atzera eta aurrera, mando gainean gauzak jaisten. Gero gure gizonak-eta lagundu zieten, kanpamendua jartzen. Han egon ziren denboran, hiru-lau lagunek egiten zuten lo gurean. Gainerakoak ez dakit nola konpontzen ziren”, azaldu du Manuelak. Hamabi bat ordu eman zituzten Aizbeltzera gauzak eramaten. Jatekoa, berriz, Larraskandako bentatik eramaten zieten, Erentzako mandoetan.

Juan San Martinen arrastoan

Juan San Martin izan zen jaisten lehenena. “Bihotz berokoa eta buru hotzekoa zelako” aukeratu zuten San Martin, Adolfo Leibar espedizio buruaren arabera. Idatzietan jasotakoaren arabera, 7:54an sartu zen leizera eibartarra, eta hogeita minutu jaitsi zuen lehenengo bertikala. Le-

hen pausoa lortu zutela ikusita, hiru uso mezulari askatu zituen Leibarrek, hiruna ohartxorekin. Hiru usoak iritsi ziren Pasai San Juango egoitzara, baina haietako battek zeraman mezua ezin izan zuten irakurri, itxuraz usoa bidean zerbait jatera gelditu eta zikin-zikin eginda zegoelako papertxoa.

Ez zen hor amaitu espedizioa. San Martini Jesus Hospitalerrek, Daniel Maizek, Felix Ruiz de Arkautek eta Sigfrido Koch argazkilariak jarraitu zioten. Daniel Maizek ez beste guztiak jaitsi zuten bigarren bertikala, 90 metrotik gorakoa. Haiei zor diegu gaur egun Aizbeltzko leizearen inguruan dakiguna. Izarraizko mendi leirroan 300 leize inguru daude, handienetakoa Marikutxa 3 izenekoa, 500 metro sakonakoa.

Aranzadiko talde hark mugarri bat ezarri zuen, eta bailarako baseritarrek gogoan dute oraindik. Espedizio hark mita bat eraitsi zuen, baina leiendak bizirik dirau oraindik Mendaron.

BOSGARREN MOTXAILA EGUNA, AIZBELTZEN

Garai bateko *sasikopotzu* ohitura zaharrari jarraituz, Motxaila Eguna ospatuko dute bihar Mendaron, Aizbeltzko kobazuloan. Udaberriaren etorrera ospatzeko modu bat zen *sasikopotzu*, eta mendian ogitartekoa janez eta dantza eginez igarotzen zuten gure arbasoek. Orain dela bost urte, tradizio hori berreskuratu zuten mendarotar gazte batzuek, eta gure zaharren ohiturari Mendaroko elementu identitario bat gehitu zioten (Mendaro motxaileria), biekin inautea edo natura negutik esnatzeko sasoia ospatzeko.

Motxaileria zen garai batean Mendaro. Udaberriaren etorrera ile moztaleei oso lotua zegoen garai hartan, ardiei eta astoei ilea mozteko kontratatzen zituzten motxaileri hain zuzen ere. Iragan hori gogoratzen dute Motxaila Egunean, kultur antzitasuna, hizkuntza biodibertsitatea eta naturaren defentsa oinarri hartuta. Duela bost urte ospatu zuten lehenengoz. Ekitaldi xume bat prestatu zuten orduan inauteri bueltarako, baina ohitura hura errotuz joan da, eta gero eta jende gehiago batzen du jai horrek Mendarora, Alain Ulaiziak azaldu duenez. Hauxe da bihar-ko prestatu duten egitaraua:

- **11:00:** Aizbeltzera igoko dira. Han pailazoak, poesia emanaldia, monologoak eta bertsoak izango dira eguerdi aldera.
- **15:00:** Gaztetxean bazkaria egingo dute. “Potaje jitanoa eta brazojitanoa” izango dira jateko, eta ondoren kontzertu bat egongo da.
- **18:00:** Kalejira, musikari eta bertolariekin.

Urtarrilean...

JAIOTAKOAK



Ibon Lizarralde Aizpurua
Urtarrilak 12
Ion eta Miren Nekane



Nora Arrizabalaga Rodriguez
Urtarrilak 14
Jose Antonio eta Virginia



Elene Campos Riaño
Urtarrilak 16
Gorka eta Maite

Eldan Garcia Salvador
Urtarrilak 13
Oscar eta Laudiceia

Julen Blanco Ganxegi
Urtarrilak 19
Alvaro eta Eneritz

Jare eta Iñigo Merino Corbillon
Urtarrilak 21
David eta Naiara

Lander Fernandez Nieto
Urtarrilak 25
Victorio eta Yolanda

Eduardo Salvatierra Lianos
Urtarrilak 16
Rodrigo eta Ana Julia

EZKONDUTAKOAK

- **Mikel Arriola** eta **Nerea Iñiguez** Urtarrilak 9

Jaiotakoan atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hilabeteko lehenengo astelehenerako ekarri behar duzu erretratua **BARRE**neko erredakziora edo barren@elgoibarkoizarra.com helbidera bidali. Jaiotakoan argazkia jartzeagatik **2 euro** kobratzen dugu.

HILDAKOAK

- Jose Manuel Rodriguez** • 85 urte • Urtarrilak 10
- Iñaki Arrieta** • 50 urte • Urtarrilak 15
- Elena Ansola** • 91 urte • Urtarrilak 17
- Concepcion Arozena** • 89 urte • Urtarrilak 25

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK
NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**

**Erietxe
zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 / (Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekoa) 635 756 295

OROIMENA

JOXE MARI BETELU AZURMENDI



1933 - 2010

*Ez nau iluntzen baratzatikan
Azken loreak biltzeak
Muga guztien arrazoi bila
Arnas gabe ibiltzeak
Arratsaldeko argi betera
Zentzu denak umiltzeak
Amets betezko loa baitakar
Behin betirako hiltzeak.*

Zure anaia Patxi eta koinata Edurnek
beti gogoan izango zaitugu.

Urrezko Aizkoraren finalerdia jokatuko dute domekan ikastolako frontoian

ETB-1en emango dute ikuskizuna

Urrezko Aizkora txapelketako finalerdia jokatuko dute domekan, ikastolako frontoian, eta punta-puntako aizkolariek parte hartuko dute. Elite mailako norgehiagoka izango da ikuskizun nagusia: Floren Nazabalek eta Arkaitz Jauregik osatutako bikoteak Larretxea aita-sembleak izango dituzte aurrez aurre. Bigarren mailan, Murgertza anaiek bezperan Asteasun irabazten duen bikotearen kontra jokatu beharko dute. Ekitaldiko sarrera 12 eurokoa izango da (18 urtetik beherakoentzat, doan). Ikuskizuna ETB-1en emango dute.



Iker Maiorak hirugarren postua eskuratu du Euskadiko iraupen krolean

Iker Maiora mendarorak hirugarren postuan amaitu zuen Euskal Herriko iraupen krolean, 43:35 denborarekin. Joan zen domekan jokatu zuten proba Zornotzan, eta, datorren astean Espainiako txapelketa jokatu du, Haron.

Areto futboleko Concepto Createch taldea mailaz igotzeko bidean da



Areto Futbol txapelketako lehen itzulia amaitu da, eta, Elgoibarko Concepto Createch taldea bigarren postuan dago, liderrarengandik bost puntura. Nazional B mailan dago taldea, eta oso denboraldi ona egiten ari da. Hamaikagarren jardunaldira arte lehen postuan egon ziren, baina ordutik beherakada txiki bat izan dutela aitortu dute taldeki-deek. Azken hiru partidetan, ordea, bi garaipen eta berdinketa bat eskuratu dituzte. Lehen sailkatuari gertutik segitzea eta mailaz igotzea da taldearen helburua.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 2 – Gernika 0 (3. maila)
 Elgoibar 0 – Lagun Onak 4 (Erreg. Pref.)
 Elgoibar 6 – Mariño 0 (Chorezko Jub.)
 Tolosa 1 – Elgoibar 2 (Kad. A.)
 Amaiak Bat 1 – Elgoibar 4 (Nesk.)

ESKU PILOTA

Udaberi Txapelketa

Lagunak 14 – Beloki 22 (1. mailako nag.)
 Lagunak 22 – Azkoitiko 16 (1. mailako nag.)
 Mundarro 22 – Lagunak 9 (3. mailako nag.)
 Aurrera 5 – Lagunak 22 (2. mailako nag.)
 Aurrera 12 – Azkoitiko 22 (1. mailako nag.)

ESKUBALOA

Donibane Majestic 25 – Alkorta Elg. 29 (Sen. mut.)
 Beristain Elg. 36 – Amenabar 17 (Jub. mut.)
 Pneumax Elg. 38 – Ereintza 34 (Kad. mut.)
 Amaña 21 – Lauko Elg. 25 (Kad. nesk.)
 IMH Elg. 15 – Errotaberi 30 (Kad. nesk.)
 Grupo Eibar Elg. 17 – Bera Bera 34 (Jub. nesk.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Eibarko Kirodegian)

Domeka, 21

11:30 Concepto Createch – La Bellota

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 20

13:00 Elgoibar – Arizmendi (Kad. B)

16:00 Elgoibar – Lazkao (Erreg. Pref.)

18:00 Elgoibar – Antiguoko (Txiki)

Domeka, 21

12:00 Elgoibar – Zumaiako (Chorezko inf.)

ESKUBALOA (Kirodegian)

Zapatua, 20

10:15 Astigarraga Elg. – Legazpia (Inf. nesk.)

11:30 Aterpe Elg. – Lezo (Inf. nesk.)

12:45 Bankoa Elg. – Arrate D (Inf. mut.)

16:00 Lauko Elg. – Leizaran (Jub. nesk.)

17:30 Grupo Eibar Elg. – Leizaran (Jub. nesk.)

19:00 Alcorta Elg. – Irungo Gaztiak (Sen. mut.)

Domeka, 21

9:00 Txarriduna Elg. – Aloña Mendi (Inf. mut.)

ESKU PILOTA

Berrixakua, 12

22:00 Lagunak – Beloki (2. mailako nag.)

23:00 Lagunak – Añorga (1. mailako nag.)

NATALIA MELLADO

Abeslaria

Elgoibartik Madril aldera joan zen Natalia Mellado orain dela hamar urte inguru. Ordutik mundu osoan zehar ibili da kontzertuak eta ikuskizunak ematen, baina gure herrian ez da sarri egon: azkenekoz orain dela bost urte. Gaur gauean, 22:15etik aurrera Herriko Antzokian izango da 'Natalia' ikuskizunarekin.

“Elgoibarko emanaldia berezia izango da, eta ilusio handia daukat”



Aspaldian ez duzu kontzerturik eskaini Elgoibarren. Zer sentitzen duzu?

Etxean nagoela sentitzen dut, maite nauen jendearen aurrean eta jaiotzen eta hazten ikusi ninduen herriaren aurrean. Elgoibarko emanaldia ez da bat gehiago nire ikuskizunen zerrendan. Berezia da, eta ilusio handia daukat. Urrun egon arren, nire ibilbidea jarraitzen duen jende asko dago hemen.

Zer eskainiko diezu Elgoibarko ikusleei?

Elgoibarrera etorri izan naizen guztietan, ikusleek entzun nahi duten hori eskaintzen saiatzen naiz. Kopla eta flamenko emanaldia izango da, eta espero bezala irteten bada ikuskizuna, jendea gustura geratuko da. Musikari bikainak eta profesionalak ditut inguruan, eta ikusleek nekez ahaztuko gaituzte.

Zer kontaktu diezu taldekideei zure herriaz?

Elgoibarko jendea, kultura, gastronomia eta herria bera izugarri gustatuko zaiela esan diet. Denboraz etortzea nahi dute, herria behar den bezala ezagutzeko aukera izateko. Tamalez, ez dugu den-

bora handirik izango, bihar Madrilen beste emanaldi bat daukagu-eta.

Elgoibartarrek nola erantzungo dutela uste duzu?

Gaur gauean Elgoibarren abestuko badut, elgoibartarrek egin duten ahaleginagatik izango da. Eskerrak eman nahi dizkiet nire emanaldia eskatu duten guztiei, eta baita ere, Udalari, herritar horien eskaria kontuan hartu duelako.

Artista asko ez dira profeta izaten euren herrian. Zer uste duzu?

Ni ezin naiz kexatu, horixe ezetz! Bakoitzak bere gustuak ditu, eta errespetatu egin behar da.

Errusia aldean ibili zara orain dela gutxi. Une honetan zein dira eskuartean dituzun proiektuak?

Udan Italiara joango gara bost eguneko bira egitera. Uda parterako lan eskaintza asko ditugu.

Zein da epe laburrerako daukazun helburua?

Oporrak hartzea! *Jajaja*. Nire nahia lanean segitzea, eta bide batez, gauza berriak ikastea. Oraindik asko daukat egiteko eta ikasteko.

Amsterdango orkestraren metal taldea ikustera joan zirenek San Bartolome parrokia bete zuten

Bandaren 125. urteurreneko hurrengo kontzertua apirilaren 24an izango da

Amsterdango Concertgebouw orkestraren metal taldearen kontzertua izan zen hilaren 11n, eta San Bartolome parrokia txiki geratu zen. Udal Musika Bandaren 125. urteurrena ospatzeko prestatu dituzten ekintzen artean "potoloena" zela aipatu zuen Jose Antonio Osoro Bandako zuzendariak, eta herritarrek oso ondo erantzun zioten goi mailako musikariak zuzenean entzuteko deia. Sarrera guztiak saldu zituzten, eta zenbait ikuslek zutik entzun behar izan zuten musika saioa. Guztira, 800 lagun izan ziren ekitaldian.



Akustika ona

Kontzertua hasi baino hiru ordu lehenago prentsurrekoa eskaini zuen Ivan Meylemansek, orkestrako zuzendariak, eta besteak beste, San Bartolo-

me parrokiaren akustika ona nabarmendu zuen. Horrez gain, Elgoibarren jotzeko aukerarekin oso pozik zeudela azaldu zuen, eta Espainian zehar eginko biran oso gustura jardun zutela gai-

neratu zuen.

Udal musika bandaren 125. urteurreneko hurrengo ekitaldia Loureiroko (Portugal) musika bandaren kontzertua izango da, apirilaren 24an.

Oporretan joateko gomendioak emango dituzte 'Ostegun bidaiariak' egitasmoan



Gazte Informazio Guneak antolatuta, atzo hasi zen 'Ostegun bidaiariak' egitasmoa. Oporretan joateko ideiak eta gomendioak emango dituzte, datozen hiru eguenetan. Otsailaren 25ean Suediari buruz hitz egingo du Maialen Astigarragak; martxoaren 4an, Alpeak izango ditu hizpide Eñaut Izagirrek, eta azkenik, Danele Sarriugartek Alemaniari buruzko informazioa emango du, martxoaren 11n. Hitzaldi guztiak Kultur Etxean izango dira, 19:30ean.

Udaberrirako ikastaroak antolatu ditu UEUK

Udako Euskal Unibertsitateak udaberrirako ikastaroak antolatu ditu, eta izena emateko epea zabalik dago. Ikastaroak Eibarren izango dira, martxoaren 3tik maiatzaren 22ra bitartean. Besteak beste, web dinamikoen garapena, wordfast programaren hasapenak eta etxeko erremedio naturalei buruzko saioak eskainiko dituzte. Ikastaro hauetan parte hartu edo informazio gehiago nahi dutenek 943 821 426 telefonora deitu edo markeskoa@ueu.org helbidera idatzi dezakete.

Bestalde, Elgoibarko Euskara Batzordeak diru-laguntzak emango dizkie ikastaroetan parte hartu nahi duten herritarrei. Laguntza horiei buruzko informazioa eskuratzeko, 943 744 366 telefonora deitu behar da.

LANA

ESKAERA

- Emakumea etxeko lanak egin, nagusiak zaindu edo tailerrean lan egiteko prest. ☎ **685 761 979**
- Klase partikularrak ematen dira. Maila eta irakasgai guztiak. Ingelesa ere bai. Adin guzietarako. ☎ **652 763 264**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Goizez. ☎ **626 329 979**
- Mutila banatzaile lanak egiteko, eraikuntzan jarduteko, nagusiak zaintzeko edo zamalanetarako prest. ☎ **689 985 800**
- Neska euskalduna, etxez etxeko tituluarekin (UNED), nagusiak zaintzeko prest. Goizez. ☎ **675 711 658**
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Geriatriko tituluarekin. ☎ **943 531 608**
- Ostalaritzan lan egiteko prest. Janari landua prestatzen esperientzia daukat. ☎ **659 320 774**
- Emakumea adinekoak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Goizez, arratsaldez edo gauz. ☎ **671 476 869**
- Edadeko jendea zainduko nuke arratsaldeetan. ☎ **943 743 251**
- Gizonezkoa lanerako prest. Nagusiak zaintzeko, sukaldari laguntzaile aritzeko edo beste edozertarako. ☎ **665 513 851**
- Emakumea garbiketa lanak edo nagusiak zaintzeko prest. Interna, externa edo orduka. ☎ **662 247 584**

- Emakumea garbiketa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka lan egiteko. ☎ **663 786 976**
- 43 urteko emakumea, erizain laguntzaile tituluarekin, nagusiak edo haurrak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Euskaraz badaki. ☎ **678 117 022 82** (20:00etatik 22:00etara)
- Emakumea, nagusiak edo haurrak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **679 231 950**
- Emakumea, edozein lanetarako prest. ☎ **649 023 534**
- Emakumea, interna edo externa lan egiteko prest. Erizain profesionala. ☎ **649 008 036**

ESKAINNTZA

- Bi kamarero behar dira: bata aste barruan lan egiteko, eta bestea, asteburuetarako. Kontratuarekin. ☎ **662 327 003 (12:00etatik aurrera)**
- Mutil euskalduna behar da, 20-35 urtekoa, komertzial arloan gaitasunarekin eta auto propioarekin. ☎ **685 714 572**
- Ingeleseko klase partikularrak emateko pertsona behar da, DBH 1. maila. ☎ **608 312 572**

ETXEBIZITZAK ETA LOKALAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Lokala salgai Errosario kalean. Berria, lanera sartzeko prest eta instalazio guztia eginda. Masajista baten-tzako egokia. ☎ **616 175 672 (Txomin)**

- Borda salgai Elgoibarren. Obretako baimena eta hektarea bateko lursaila ditu. ☎ **605 761 545**
- Pisia alokatzen dut Mendaron. ☎ **658 603 478**
- Elgoibar erdigunean pisua salgai. Bizitzera sartzeko moduan. 3 logela, terraza handia eta garajea. ☎ **685 724 553**

GARAJEAK

- Garaje itxia salgai Plaza Txiki inguruan. ☎ **628 521 579**
- Aterpe taberna azpian garajea alokatzen da. ☎ **943 741 837**
- Garaje itxia alokagai Jausoron. Plazatik gertu. ☎ **669 022 573**

BESTELAKOAK

- Urrezko pultsera bat galdu nuen duela bi aste. Norbaitek aurkitu badu, deitu mesedez. ☎ **943 743 251**
- Hamster batentzako kaiola oparitzen da. ☎ **678 976 368**
- Rocioko Ama Birjinen urrezko domina galdu dut zine inguruan. Norbaitek bilatu badu mesedez itzuli dezala. Gaixotasun larria dut, eta garrantzitsua da niretzat. ☎ **943 743 163**

OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira **BARREN**en eta astero barren.iragarkilaburak.com atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

MODULOAK

Lana / Bestelakoak

Astebete : 5 euro

2 aste : 8 euro

3 aste : 10 euro

Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra

Astebete : 10 euro

2 aste : 17 euro

3 aste : 25 euro

PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xizailon, 2. 3. soltoa ☎ **943 74 36 52 - 74 27 89**
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

CORDON VILARCHAO
DEKORAZIOA
Kango eta barmeko arakak
Zolak ezartzea
Lakadua egur, aluminio, PVC.
Pinturak onaketa
San Roke, 7 beheko
Pel. Glaso - Glasoga kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak
Tel. 943 748 570

AIRETIK ATERATAKO ERRETRATUAK SALGAI!!
Eskatu zeurea!
Informa zaitetz
943 744 112 telefonoan.



• Zorionak, **Maialen**, 4 urte egin dituzulako. Etxeko guztien partez.




• Zorionak, **Ixone**, hilaren 17an 3 urte egin zenituelako. Guraso, anaia Aimar, aitona-amoneta eta Martaren partez. Egun ona pasa!



• Zorionak, **Gorka** maitea, hilaren 21ean urtebete egingo duzulako. Bereziki, guraso eta aitona-amonen partez. Muxu mordoa!



• Astelehenean 7 urte egingo dituzulako, zorionak eta muxu handi bat, **Golatz**. Etxekoen eta, bereziki, Udaneren partez.



• Zorionak, **futbolero**, gaur 8 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoen, eta, bereziki, Julenen partez.



• Zorionak, **Nora**, hilaren 20an 5 urte egingo dituzulako. Familiakoen, Leire eta Malenen partez.



• Zorionak, **Pabx**, zure 5. urtebetetzean. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Ibon**, hilaren 17an 3 urte egin zenituelako. Aitaxo, amatxo eta, bereziki, Nora eta Koldoren partez.



• Otsailak 8, 9 eta 10. A ze hiru perla. Badaukagu ospakizun eder bat egiteko aitzakia. Zorionak!!!



Erretratu bakarreko agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro.

Hirukoitza: 5 euro. Handia: 6 euro.

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**neko bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

BARREneko
erretratuak
salgai!

BARREN astekarian edo www.elgoiBARREN.net atari digitalean argitaratzen diren erretratuak erosteko aukera daukazu (erretratu bakoitza 2 euro).

Nafarroa enparantza, 2 - Elgoibar - Tel.: 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.com

21 domeka **FOTERO**

FARMAZIAK

- 24 **ORDUZ**
- 19 Zabaleta
- 20 Etxeberria (Errosario)
- 21 Etxeberria (Errosario)
- 22 Ibañez
- 23 Garitaonandia
- 24 Etxeberria (Errosario)
- 25 Fernandez
- 26 Yudego

Ibañez
Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638

Fernandez
Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta
Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

**INFORMAZIO
GEHIAGO:**



Egin klik

www.elgoiBAREN.net



19 barixakua

Musika

22:15 'Natalia'

Natalia Mellado elgoibartarraren kontzertua, Herriko Antzokian.

20 zapatua

Motxaila eguna

11:00 Kobazulora ibilaldia

Mendaroko Aizbeltz kobazulora joango dira lehenik, eta bertan hainbat ekitaldi egingo dituzte: pailazoak, poesia emanaldiak, monologoak, abestiak eta bertsoak izango dira.

15:00 Bazkaria

Mendaroko gaztetxean.

18:00 Kalejira

Musikariekin eta bertsolariekin, Mendaroko kaleetan.

'Egunkariaren' aldeko eguna

12:30 Mural-margoketa

Herriarrek *Egunkaria*-ren aldeko murala margotzeko aukera izango dute. Eibarko Untzaga plazan.

22 astelehena

Artea

17:00 Arte tailerra

Haizea emakume taldeak antolatuta, Velazquezen *La rendición de Breda* koadroa aztertuko dute. Kultur Etxean.

23 martitzena

Literatura

18:00 Literatura tailerra

Haizea emakume taldeak antolatuta, Groucho Marxen *Memoirias de un amante sarnoso* liburua aztertuko dute. Udal Liburutegian.



GAZTELEKUKO EKINTZAK

BARIXAKUA 19

Kartoiaren birtziklapena
18:00

ZAPATUA 20

Topagunea 17:00

DOMEKA 21

Zinema 17:00

MARTITZENA 23

Eskulanak 17:00

EGUAZTENA 24

Txoko pribatua 17:00

EGUENA 25

Sukalde txokoa 17:00



LUDOTEKAKO EKINTZAK

BARIXAKUA 19

Eskulanak 17:00

ASTELEHENA 22

Wii: Supermario 17:30

MARTITZENA 23

Irakurketa txokoa 16:00

EGUAZTENA 24

Sukaldaritza: alkoholik gabeko koktelak
17:30

EGUENA 25

Paraxutaren jolasak 17:30

«No es tan fácil»

20, barixakua: 22:15

21, zapatua: 19:00/22:15

22, domeka: 19:00

23, astelehena: 21:30

Estatu Batuak, 2009. Zuz.: Nancy Meyers. Akt.: Meryl Streep, Alec Baldwin. 100 min. Janek hiru seme-alaba ditu, eta Santa Barbarako jate-txe-gozotegi baten jabea da. Urteak

dira banandu zela, baina harreman ona du senar ohiarekin. Semearen unibertsitateko graduaziorako elkarrekin aterako dira hirian, eta oheratu egingo dira. Komedia erromantikoa.



24 eguaztena

Hitzaldia

19:00 'Baloreetan hezitzen'

Herri Eskolako guraso elkarteak antolatuta, 'Baloreetan hezitzen' hitzaldia izango da. Kultur Etxean.

25 eguena

Hitzaldia

19:30 'Ostegun bidaiariak'

Gazte Informazio Guneak antolatuta, Suediari buruzko hitzaldia emango du Maialen As-tigarragak. Kultur Etxeko hitzaldi-gelan.

Zerikasi

IKASTAROAK

Autoentzako osagai elektronikoak

Norentzat: Langabetuentzat
Hizkuntza: Gaztelania
Hasiera data: 2010-02-22
Non: Elgoibarren
Izena emateko azken eguna: Kontsultatu

Etxeko konponketak: elektrizitatea

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Kontsultatu
Hasiera data: 2010-03-22
Non: Elgoibarren
Izena emateko: 943 748 271 / 943 257 986

Buru-mapak: ideiak sortu eta antolatzeko teknikak

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Euskaraz
Hasiera data: 2009-03-24 / Bukaera data: 2009-03-31
Non: Donostian
Izena emateko: 943 429 003

Enpresa marketing kudeaketa digitala

Norentzat: Lanbidean alta emanda daudenentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2010-03-06
Non: Eibarren
Izena emateko: Otsailak 26

Coaching

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Euskaraz
Hasiera data: 2010-04-10
Non: Eibarren
Izena emateko: 943 821 426

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 74 82 71



«Igelak eta zapoak»
(Umeentzako)

21, domeka: 16:30

«Gigante»
(Ongarri zine-kluba)

25, eguena: 21:30

Alemania-Argentina-Urugui, 2009.
Zuz.: Horacio Camandulle, Leonor Svarcas. 90 min.

Jara supermerkatu bateko zaintzaila da. Gauetan kameretatik eraikina

zaintzea da haren lana. Egun batean, Julia ikusiko du, garbiketako emakumea, eta handik aurrera aldatu egingo zaio bizimodua. Obsesio bat izango du: emakume horri jarraitzea.

Erretratu zaharra



1982

Aste honetako erretratu zaharra Maria Luisa Garridorena da, eta orain dela 25 urte inguru ateratakoa da. Elgoibarko Tuna azaltzen da erretratuan, eta neska-mutil horien artean aurpegi ezagun bat aurkitu dugu: Natalia Mellado. Gaur gauean kontzertua eskainiko du Herriko Antzokian, baina musikarako zaletasuna umetatik zeukan neska elgoibartarrak. Gogora ditzagun erretratuko musikariak: **Goian, ezkerretik eskumara:** Mila Martinez, Luisa Marquez, Josefina Mellado, Oscar Rodriguez, Sonia Mellado, Miguel Vila, Jesus Torres. **Erdian:** Maria, Natalia Mellado, Alicia Rodriguez, Maria Blanco, Sonia Romero, Jose Antonio Martinez. **Behean:** Nora Rodriguez, Leire Rodriguez, Ainhoa Castillo, Ainhoa Tagle, Andoni Viñaras, Juan Carlos Mancebo, Ana Isabel Marin, Silvia Menor (†) eta Maria Luisa Garrido.

Gure berbak Hiztegia: interjekzio batzuk

Elkarrizketetan, ugarixak izaten dira gaur eta ondorengo astietan bilduko ditutuan egiturak bezelakuak; elkarrizketaren harixan, bat-batian sortzen diren interjekziuak eta erantzun adierazgarriak dira, enfatikauk, gure jarduna biziagotzen debena. Halaxe definitzen ditutu, izan ere, Ibon Sarasolaren *Euskal Hiztegiak*:

“Hiztunok bihotz-aldiak bizi adierazteko erabiltzen ditugun oihu hitzak edo interjekzioak”.

Gatozen, hurrenkera alfabetikuan, Elgoibarren erabiltzen diran horretako batzuk jasotzera.

◆ **ABAR, abarra:** Enparauak. ...**eta abarrai:** Jolin! Oiñ, takua eta abarra ipintzen dabe pelotarixak. / Bajaok hamen txarrikerixia ta abarra!

◆ **ABER BAI:** Norbaitek esaten duena berresteko edo ontzat emateko erabiltzen da. Lagunduko diak? Aber bai!

◆ **ADARRIK EZI:** Zerbait ukatzeko erabiltzen da. Gorospa izan dok euskal txirindularirik onena. Adarrik ez! (Adarrik ez'iak jo!)

◆ **AIBA DIOSI:** Harridura adierazten du. Gu zubixan gaiñian. Pasau giñanian bes-te aldera: Aiba Dios! Beixu dot, eta arku bat bakar-bakarrikan. Aiba Dios! Demaseko alturia! Esate naban: “haura zubixa zela ein tzeben?”.

◆ **AIDEI:** Aire!, Ospal Da illuna, pixkat illuntzen haste zanian, maixua tilin-tilin, tilin-tilin kanpaia. Ta aide danak etxe(r)a. / Da soldauak etorri, tta hamen saldia eo hartu, ta aide.

◆ **AITTARENI:** Harridura adierazten duen interjekzioa. **Aittaren eta semia-reni:** Aittiaren da semia-reni! Holakorik

ikus be nenguan gaur arte.

◆ **AKABOI:** Zerbaiten ziurtasuna egiazta-zeko edo zerbaitetik bueltarika ez duela adierazteko erabiltzen da. –Aurten ere etorriko zerate herriko jaixetara, ezta? –Akabo ba! / Hasi zan berriz erretzen, eta akabo!

◆ **ALAJAUNGOIKUAI:** Jainkoarren! Al-daera hauek ere bai: **Alajainkia, Alazainkia!**

◆ **ALLA KUIDAOSI:** Hor konpon! esapi-dearen adiera duen interjekzioa. **Alla pelikulas!** ere zentzu bertsuarekin erabiltzen da.

◆ **ALLA PELIKULASI:** Ikus **Alla kuidaosi!** sarrera.

◆ **AUSKALO!** Nork jakin! Auskalo zetara etorri jakun Inazita!

Jesus Mari Makazaga

ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Kredituxarekin ordaintzeko erraztasunak

GIDA KOMERTZIALA 2009-2010

Gida komertziala prestatzen ari gara.
Zure negozioaren telefonoa agertzea nahi baduzu,
deitu zenbaki honetara:

943 743 704

edo helbide honetara idatzi:

barren.publi@elgoibarkoizarra.com



**AZKEN
EGUNAK!**



OSASUN GIDA



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

**Kemen Belardenda. Naturopata,
Iridiologoa eta Homeopata.**

(Pisu kontrola, "Dieta erraza" mehetzeko tratamendua... Naturopatia, Bach loreak, P.N.L, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak). Quantum scio (estres kontrola) tarot terapeutikoa eta familia konstelazioa (banaka)
San Bartolome, 29 - Tel: 943 744 031
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9

Tel: 943 748 593 (Idoia) - 685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/

18-19:30/20-21:30

Mendaro: Astelehen eta asteazkenetan:

10-11:30/15-16:30

Astearte eta ostegunetan: 20:00-21:30

Pakene Ongizate Integraleko zentru berria

(Azterketa biologikoa eta osteopatikoa, Naturopatia, Homeopatia, Fitoterapia Txinatarra, Nutrizio ortomolekularra, Elikagaien jasanazintasunak, Bach-en loreak...). Tel: 943 254 505

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

(Esku- terapiak: kiropraxia, dranzatzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea). San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea) - Tel.: 943 740 770
Astelehenetik Ostiralera : 8:00 / 14:00

PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25

Tel: 943 741 795

Astelehenetik ostiralera:

9:00-13:30 / 15:00-19:30

Iñigo Arrillaga Yudego

- Hanken afekzioen terapia.

- Neurrira egindako plantilak.

- Hanka diabetikoen zainketa.

- Ordenagailuaren bidezko

hankaren azterketa.

San Frantzisko kalea, 20 behea

Tel: 943 741 645

Ordutegia: 9:30-13:30 / 15:30-19:30

FISIOTERAPIA

Ainhoa Fisioterapia

Jausoro, 6 behea.

Goiz eta arratsaldez.

Tel.: 943 531 953

669 565 745

Andoni Schmidt Larrañaga

Etzerako Fisioterapia

Jende nagusia, neurologia, errehabilitazio orokorra, masajeak. Ekipo portatila. Ordua eskatu.

Tel.: 689 926 016

ORTOPEDIKAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

Tel: 943 74 35 62

OPTIKAK

Ikus optiko-optometrista

San Bartolome, 10

Egunero: 9:30-13:00

16:30-20:00

Tel: 943 743 734

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21

Egunero: 9:30-13:00

16:30-20:00

Tel: 943 740 359

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar)

Tel: 943 743 679

Zeharkalea, 8 behea (Ermua)

Tel: 943 177 134

irale@irale.com - www.irale.com

Leku eder

Elena Herrero Lobo.

Aita Agirre enparantza, 5 behea.

Tel: 943 530 053 - lekueder@infomed.es

Beitia Arriola

- Odontologia orokorra eta ortodontzia

- Haurren Hortzagin programa

- Panoramikak eta telerradiografiak

Trenbide kalea 21, behea

Tel: 943 531 869

